



### 3 MERKATARITZA

#### Aterpearen kanpaina berriarekin opariak eskuratzeko aukera

Aterpea elkartearen dauden herriko denda eta ostalariek kanpaina berria jarriko dute martxan, "bezeroaren hama-bostaldia". Hauek txartel batzuk banatuko dituzte bezeroen artean eta hauekin sari desberdinak lortzeko aukera izango dute: deskontuak, zinemarako sarrerak... Urriaren 15ean hasi eta 30ean amaituko da kanpaina hau.

### 5 ERREPORTAJEA

#### Euskararen zapalkuntza garaia gogora ekarriko dira

Euskal Jaiaren egitarauaren baitan, Ttakunek, Udalak eta Euskal Memoria Fundazioak "Euskara ospeletik eguterara" erakusketa ekarri dute Manuel Lekuonara. Gaurtik izango da ikusgai larunbata bitartean eta euskararen zapalkuntza garaia ekartzen ditu gogora hainbat testigantza eta daturekin. Honekin lotuta, asteazkenean "Euskararen kate hautsiak" dokumentala ikusi eta solasaldia egingo da. Honetan hainbat herritarrek euren testigantzak eskainiko dituzte.



## XIX. Lasarte-Oria Bai! krosa aurkeztu dute

### Aurtengo omenduak gurgildun aulkietako atletak izango dira

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak aurkeztu du urriaren 26an jokatu den Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia XIX. edizioa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurtengo nobedade nagusia denborak neurtzeko txipa izango da, dortsalean integratua joango dena. Beraz, korrikalariak ez dute bost euroko fidantza ordaindu behar izango. Dortsalean 1 zenbakia gurgildun aulkian ateratzen diren lasterkariak eramango dute, guztiek.

Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia XIX. Edizioa Urriaren 26an korrituko da, goizeko 10:30ean hasita Parte-hartzaileek 10.500 metroko ibilbidea bete beharko dute.

Horraino ez da nobedaderik. XIX. edizioa berrikuntza nagusia txipean dago. Izan ere, lehenengo aldiz txipa dortsalean izango da integratuta, horrek suposatzen dituen abantailak. "Antolatzaileon ikuspuntutik, sistema berriak lanak erraztuko dizkigu materiala banatzean, eta bereziki, lasterketa amaieran", adierazi dute Ostadar SKTKo kideak.

Sistema berriak zenbait aldaketa egitera behartu ditu antolatzaileak. Batetik, izena emateko plataforma aldaketa: [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) webgunera jo beharko baita izena emateko ([www.ostadarskt.org](http://www.ostadarskt.org) webgunean ere eman daiteke izena). Bestetik, txip horirik ez da onartuko, sistema berriak ez baitu txip horia daukaten korrikalarien



Jose Antonio Iglesias, Mikel Goikoetxea eta Lontxo Esnaola omenduetako batzuk Ostadarreko kideekin batera ostiralean.

denbora neurtzen. Hortaz, lasterkariak dortsalak eta kamiseta teknikoak baino ez dituzte jaso behar izango. Dortsalak larunbatean eta igandean banatuko dira Mitxelingo frontoian; larunbatean, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara. Igandean, berriz, 9:00etatik 10:00ak arte soilik. Horren harira, korrikalari guztiei, eta batez ere herritarrei, jaso beharrekoa bezperan jasotzeko eskatu diete antolatzaileek.

#### Bat zenbakia

Aurtengoan gurgildun aulkian aritzen diren korrikalari guztiek eramango dute bat zenbakidun dortsala. Lontxo Esnaola herritarrek jaso ditu 1 zenbaki guztiak, berak egiten baitu zubi-lana antolatzaile eta atleta kolektibo horien artean. "Guretzat ohore handia da kirolari hauek urtero gurekin izatea. Atleta hauen baloreak txapela kentzeko modukoak dira: mugak gain-

ditzeko grina, zailtasunen aurrean aurrera jotzeko borondatea, konstantzia, sakrifizioa, elkartasuna... Eta guztien artean aipamen berezia egin nahi diogu Lontxo Esnaolari. Urte guzti hauetan gurekin izan dugu, hasiera batean lehiatzen, eta ondoren zubi-lana egiten".

#### Izen-ematea, gaurtik hasita

Korrikalariak bi aste epea izango dute izena emateko, baina antolatzaileek "azken unera arte ez itzaroteko" gonbitea egin diete.

Izena emateko aukera ezberdinak daude. Ostadar SKTK Geltoki kaleko 25. zenbakian duen egoitzan astelehenean ostiralera (17:00etatik 20:00etara) egin daiteke; [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) edo [www.ostadarskt.org](http://www.ostadarskt.org) web orrialdeetan eta lasterketa egunean Mitxelingo frontoian (9:00etatik 10:00etara).

Izen-emateak 12 euroko balioa du; Ostadarreko bazkideentzat, 8 euro. Azkeneko

egunerako uzten dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Urtero moduan, korrikalari guztiek kamiseta tekniko bana jasoko dute opari, kirol aseguru izango dute, lasterketa amaitzean Lasarte-Oria kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute eta hainbat opariren zozketetan parte hartuko dute.

#### Korrika festa

Nagusien lasterketa eta sari-banaketa ekitaldia amaitzean, 12:15ak aldera, Korrika Festaren XIV. edizioa hasiko da. Antolatzaileek bost eta hamalau urte arteko 700 korrikalari inguru espero dituzte, eta adinaren arabera 100, 150, 400, 800 eta 1.200 metroko ibilbideak osatu beharko dituzte. Izen-ematea Ostadar SKTren egoitzan egin behar dute. Gaztetxo bakoitzak 5 euro ordaindu behar ditu, eta trukean, kamiseta bat, domina bat eta edateko jogurt bana jasoko dituzte.



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

## GIZARTEA

# Lasarte-Oria kultur aniztasunaren alde

*Herrian hainbat jarduera burutuko dira urrian; Euskal Jaia ospatuko da larunbat honetan*

Babesa eman die Lasarte-Oriako Udalak urrian zehar kultur aniztasunaren inguruan egingo diren ekimen kultural guztiei. Euskal Herriko XXV. Andaluziar Topaketak egin asteburuan. Larunbat honetan berriz, Euskal Jaia ospatuko da, eta ekintzekin bukatzeko, urriko azken asteburuan 'Lasarte-Oria Guztiona' festaren bigarren edizioa ospatuko da.

## TXINTXARRI

**K**ulturalki, herri "aberratsa" da Lasarte-Oria, Udalaren esanetan: "70 kultura desberdin baino gehiagok osatzen dute gure herria. Gipuzkoako herririk aniztzenetako bat izango gara; sekulako kultur aberastasuna ematen digu horrek", adierazi du Udalak ohar bidez.

Kultur aberastasun horren seinale, hainbat jarduera desberdin antolatu dira Lasarte-Orian, urrian zehar. Esaterako, Euskal Herriko XXV. Andaluziar Topaketak egin ziren larunbatean, FARAE Euskal Herriko Andaluziar

Elkarte Erregionalen Federazioak antolatuta. Larunbat honetan Euskal Jaia ospatuko da, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik.

Urriko azken larunbatean berriz, urriaren 25ean, 'Lasarte-Oria Guztiona' festaren bigarren edizioa egingo da, herriko hainbat elkartetatik osatutako Aniztasunaren Sareak eta Udalak berak sustatuta.

Kaleratutako oharrean "babesa" eman die Udalak ekimen kultural horiei, "kultur aniztasuna aberastasuna da" ideia indartuz.

### Andaluziar Topaketak

Aurtengo Andaluziar Topaketak burutzeko Lasarte-Oria hautatu izana "pozgarria" da



Aniztasunaren bandera jarrita dago jada udaletxe berriko balkoian.

Udalarentzat: "Egun hori aukera ederra izan da Andaluziak eta Euskal Herriak elkar ezagutzeko".

Oharraz gain, beste ekintza batzuk ere egin ditu egunotan Udalak. Esaterako, udaletxe berriko balkoian ikusi daiteke dagoeneko Kultur aniztasunaren inguruko

bandera bat. Horrez gain, oharrean aipatutako guztiaren adierazgarri gisa, deklarazio instituzional bat prestatu eta zabaldu du Lasarte-Oriako Udalak:

"1.- Ongietorria egiten diegu hilabete honetan Lasarte-Oriara hurbiltzen diren guztiei, eta festa-giroko eta

alaitasunezko ospakizuna izan dadila nahi dugu.

2.- Urriaren bigarren asteburuan Andaluziako bandera ipini dugu udaletxe zaharreko balkoi nagusian.

3.- Era berean, urriaren hirugarren asteburuan ikurri-ina ipiniko dugu udaletxe zaharreko balkoi nagusian".

## IV. Auzomintegiak, bukatzeak

**M**artxoan hasi ziren Ganbo Iturri elkarteak antolatutako IV. Auzomintegiak, eta aste honetan bukatuko dira. Ostegunean, zehazki: hitzaldia emango du Daniel Innerarity filosofoak, Urrietako Lekaio kultur etxean, 19:00etan.

Europako Batasunaren egungo antolaketa eta etorkizunaz eta bere inguruan sortutako itxaropen eta etsipenez ariko da. Bide batez, Eskoziako eta Kataluniako prozesuek Europar duten eraginaz solasean ariko da.

Daniel Innerarity Zaragozako Unibertsitateko katedraduna da eta Donostian



Hitzaldia eman zuen Xabier Ezeizabarrenak apirillean.

dagoen Globernance Institutuaren zuzendaria. 2004ean, Frantziako prentsak 'munduan itzal handiena duten 25

filosofoen artean' zela adierazi zuen. Iaz, Nafarroan eman ohi den Vianako Printzearen Saria jaso zuen.

## PSE-EEren mozioa biharko udalbatzarrean

**M**ozio bat aurkeztuko du PSE-EEK bihar. Eskatuko dute erakusketa areto bihurtzeko 'Antonio Mercero' museoa egiteko udaletxean bideratutako espazioa. Hori posible egiteko, eskatuko dute araudi bat egitea, espazio horren funtzionamendua zehaztuko duena.

'Antonio Mercero' izeneko museoa egiteko espazio bat bideratu zuen PSE-EEK udaletxean, bere azken legealdian. Zine zuzendari eta gidogilearen ibilbide profesionala erakusteko erabili nahi dute museo hori.


### Krisiaren eragina

"Krisi ekonomikoa dela eta, Udalak erabaki du proiektu horrek ez duela lehentasunik, eta kaxoi batean gordeta utzi du. Hala ere, azpiegiturari buruzko erabaki bat hartu beharra dauka Udalak, ezin du hutsik jarraitu", adierazi du ohar bidez PSE-EEko bozeramaile Jesus Zaballosek.

Zaballosek proposatu du erakusketa areto bezala erabiltzea espazio hori, herriko artistei eskainiz gunea, artistek beraiek kudeatu eta eskaintza kulturala garatzeko aukera izan dezaten.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna  
E. Iñigo Gonzalez  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Jone M. Hernandez,  
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu  
Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## ATERPEA

# Aterpearen kanpaina berria

*Etzi hasiko da 'Bezeroaren hamabostaldia' izeneko egitasmoa*



Agerraldia egin zuten ostiralean Aterpeko ordezkariak, 'Bezeroaren hamabostaldia' kanpaina aurkezteko.

Kanpaina berria jarriko du martxan Aterpeak, asteazken ean: 'Bezeroaren hamabostaldia'. Herriko komertzio eta ostalariek txartel batzuk banatuko dizkiete bezeroei. Txartel horiekin hainbat sari irabazi ahalko dituzte: 2 eta 3 euroko deskontuak, haur zein helduen zinemarako sarrerak, antzerkietarako sarrerak... Etzi hasiko da kanpaina eta urriaren 30ean bukatuko da.

## TXINTXARRI

**A**gerraldia egin zuten ostiralean Aterpeko ordezkariak, etzi hasiko den proiektu berria aurkezteko: 'Bezeroaren hamabostaldia'. Ahateen parkean eman zituzten egitasmo horri buruzko xehetasun guztiak, 13:15ean.

## Sari ugari

Datorren asteazkenean hasiko da kanpaina, eta urriaren 30ean bukatuko da. Herriko

komertzio eta ostalariek zenbait txartel emango dizkiete bezeroei. Txartel horietan mota guztietako sariak aurkitu ahal izango dituzte bezeroek: 2 eta 3 euroko deskontuak, haur zein helduen zinemarako sarrerak eta antzerkietarako sarrerak, besteak beste.

Horrez gain, antolatzaileek jakinarazi dutenez, txartel horiek zozketa batean sartuko dira; 300 euro poltsikoratuko ditu irabazleak. Sari hori eskuratu ahal izateko, txartelaren azkenengo lau zifrek ONCEK

antolatzen duen urriaren 31ko zozketako zenbaki saridunaren azken lau zifrekin bat etorri beharko dute.

Aterpeak eskerrak eman nahi dizkie Martin Berasategi jatetxeari, Lasarte-Oriako Udalaren hainbat batzorderi (Kultura eta Garapen Ekonomiko eta Komertzio batzordeei zehazki) eta Eusko Jaurlaritzari, Aterpearekin elkarlanean aritzeagatik.

## Manttangorri doan

'Bezeroaren hamabostaldia' ez da Aterpeak eskuartearen daukan kanpaina bakarra. Irailaren 8an jarri zuten martxan beste bat: Aterpeko denda eta tabernetan 5 euro baino gehiagoko erosketak egiteagatik, Manttangorri bidaiak doan eskuratu ditzakete herritarrek. Abenduaren 31n bukatuko da Manttangorriaren kanpaina.

## Xumelako kideak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen diskoaren grabaketan

**P**irritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen proiektu berrian hartu dute parte herriko Xumela koruko kideak. Andoaingo Garate Studioan aritu ziren grabaketa lanetan, Kaki Arkarazo teknikariaren eta Xabier Zabala konpositorearen gidaritzapean. Azaroaren 14an aurkeztuko dute diskoa, Albaola egoitzan.

Hiru pailazoen disko berriak Albaola proiektua izango du ardatz; Pasai San Pedron eraikitzen ari diren XVI. mendeko baleontziaren erreplika, alegia.

## Hiru abesti

Hiru abestitan hartu dute parte Xumelakoek: Andoni Egañak Xumelako zuzendari Josu Txapartegiri eskainitakoan, Jon Maia bertsolariak Zumaiaiko arraunlariei konpo-



Xumelako kideak, Garate Studioan grabaketa lanetan aritu ziren egunean.

satutakoan eta Kepa Junkerak, Eñaut Elorrietak eta Kirmen Uribe Gure Esku Dago ekimenari egindakoan.

Zarauzko Montexio abesbatzarekin batera abestu zuen, eta Niko Etxart kantariarekin eta Zumaiaiko arraunlariekin bi kanta partekatuz zituen Xumelak.

"Ilusioz eta arduraz" burutu dute Xumelakoek diskoaren grabaketaren erronka. Urteik urtera igotzen ari da abesbatzaren kide kopurua: dagoeneko 60 lagunetik gora elkartzen dira astelehenero, ordu batez, elkarrekin euskaraz modu erraz eta alai batean kantatzeko.

## UDALA

Ohiko udalbatzara bihar arratsaldeko 18:30etan

Gai zerrenda zabala izango da Udaletxeko pleno aretoan. Hasteko, 2014. urterako Lanpostuen Zerrendaz eta Zerbitzu Sozialen arduradun lanpostuaren derrigortasun-datari buruzko legezko zuzenketaz hitz egingo da. Bilduk bi mozio aurkeztuko ditu: Kataluniako kontsulta bertan behera uzteko hartutako erabakiari buruzkoa bata eta liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uzteko proposamena bestea. Sozialistek berriz, Antonio Mercero espazioari buruzko mozioa aurkeztuko du. Amaieran, herritarrek galderak egiteko aukera izango dute ohi bezala.

## JAIA

Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai

Urriaren 18an arratsaldeko 14:00etan egingo den paella-janerako txartelak salgai daude sei eurotan Jalgin eta Ttakunen. Antolatzaileek txarte hauek ahalik eta lasterren erostean gomendatzen dute, 200 lagunentzako lekua baitago Okendo plazan.

## EUSKARA

Nafarroa Oinezera autobusa

Hernaniko Dobera Elkarteari Ttakunek urriaren 19an izango den Nafarroa Oinezera autobusa antolatu du. 9:00etan Hernanitik abiatu eta Lasarte-Orian 9:15ean egingo du geldialdia Jalgi parean jendea hartzeko. Dagoeneko txartelak eros daitezke, Ttakuneko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek berriz, 12 euro. Lekua hartzeko azken eguna urriaren 16a izango da.

## AISIA

Artisautza Amaraun ludotekan

HH5, LH1 eta LH2 mailetako haurrek artisautza lantzeko aukera edukiko dute Amaraun ludotekan. Bi taldetan banatuko dituzte izena ematen duten haurrak: urriaren 22an hasi eta azaroaren 26ra arte ariko dira 1go taldekoak, asteazkenean, 17:45etatik 19:15ak arte. Bigarren taldekoak ostegunetan landuko dute artisautza, urriaren 23tik azaroaren 27ra arte, ordutegi berean. Ttakuneko bazkideek 17 euro ordaindu beharko dituzte izena emateagatik; ez bazkideek berriz, 20 euro.

## EUSKARA

AEKren ikastaroetan lekua

Hasi dira aurtengo ikasturteko euskara ikastaroak Muntteri-AEK euskaltegian. '0.urratsa' egiten ari direnek 9:00etatik 13:00etara ari dira klaseak ematen goizez, eta 18:30etatik 20:30etara arratsaldean. 2. eta 7. urratsa egiten ari direnek goizez dituzte klaseak, 9:30etatik 11:45etara. 3. urratsekoak berriz arratsaldean ari dira, 18:30etatik 20:30etara. EGA ziuertagiria eskuratzeko azterketa prestatzen ari direnak ere arratsaldetan joaten dira Muntteri-AEK euskaltegira, 17:00etan. Klaseak handik bi ordu eta erdira bukatzen dituzte, arratsaldeko zazpi terdietan. Talde hauetan, batez ere hastapenekoetan oraindik kide berriak onartzen dituztela aipatu dute Muntteritik eta beraz, herritarrek euskara ikastera animatzen dituzte.

## AISIA

Nortasuna lantzeko ipuin irakurketa berezia Amaraun ludotekan

Euren nortasuna lantzeko aukera izango dute HH3 eta HH4ko haurrek, urriaren 21ean, Amaraun ludotekan. 'Nolako naiz ni?' ipuin irakurketa berezia antolatu dute. Horrez gain, asma-kizunak, abestiak eta poesiak ere baliatuko dituzte, saiora etortzen diren haurrekin nortasuna lantzeko.

Ordubeteko saioa izango da urriaren 21ean ludotekan burutuko dena. Arratsaldeko 17:45ean hasiko da, eta 18:45ean bukatu. Saiora joan aurretik, interesa dutenek izena eman beharko dute. Horretarako, hiru bide emango dituzte antolatzaileek: Ttakuneko bulegora joan ahaliko dute, 943 37 14 48 telefonora deitu dezakete edo [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com)-era idatzi.

# Ibilbideen egunean jende ugari

Buruntzaldeako herriak lotzen dituzten bideetan ohi baino jende gehiago ibili zen atzo

**Buruntzaldeako Ibilbideen VII. edizioa ospatu zen atzo eta eguraldia lagun, asko izan ziren parte hartzerak animatu ziren herritarrek. Eskualdeko herrien artean bost ibilbide zeuden aukeran eta hauen nondik-norakoak azaltzeko kontrol mahai ezberdinak kokatu ziren. Ostadar SKTko kideek hitzordua egin zuten Elizatze plazan eta herritik Andoainerako ibilbidea euren laguntzarekin egiteko aukera eskaini zieten herritarrei.**

## TXINTXARRI

Igande goizeko eguraldi ona lagun asko izan ziren Buruntzaldeako ibilbideen egunean parte hartzerak animatu zirenak.

Ohi bezala bost ibilbide egiteko aukera izan zen goiz osoan zehar. Hauen inguruko argibideak emateko herri bakoitzean kontrol mahaiak egon ziren eta mapak izan zituzten eskuragarri herritarrek. Horretaz gain, herrien arteko ibilbideak kolore ezberdinekin bereiztuta daudela gogoratu zuten eta kolore hauteko seinaleak jarraitzea besterik ez zutela azaltzen zitzaizkien herritarrei. Informazio gune hauetan etapa osatzen zutenei zigilua jarri eta fruta eskaintzen zitzaizkien indarrak berreskuratzeko.

Ibilbideen artean zailtasun eta luzeera ezberdinekoak egin ahal izan ziren eta horregatik adin guztietako jendea ikusi zen bakoitza bere errit-

moan, ibilbideei ekiten. Lagun talde askorentzat helburua Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain eta Urnieta lotzen dituen egitea izan zen.

Kuadrilla batzuek aipatzen zuteneguz, iganderoko pasearen norantza aldatu zuten Ibilbideen eguna aitzaki hartuta. Halako ekimenak inguruko herri eta paisaiak ezagutzeko parada eskaintzen dutela azpimarratzen zuten.

## Ostadar SKT

Lasarte-Oria eta Andoain arteko bidea egin zuten hainbat herritarrek Ostadar mendi saileko kideak gidari izanda. Denera hiru ordu inguruko ibilbidea egin zuten baina zailtasun handirik gabekoa. Hori bai, Buruntza gainera iristean, ohiko bidetik pixka bat desbideratu eta San Rokeko ermita eta aterpea bisitatu zituzten ibiltariak.

Bide batez, urtezahar eguneko txangoa eta txistorrada non egiten dituzten ezagutarazi nahi izan zuten.



Elizatze plazan kokatutako informazio gunean, ilara luzeak egin ziren momentu batzuetan.



Ostadar SKTko mendi saileko kideek gida lanak egin zituzten beste urte batez.



## "Motxian eby" esketx lehiaketa aurkeztu dute

DBHko ikasleen euskarazko abestien parodia onena sarituko da Buruntzaldea eta Oarsoaldeko eskualdeek antolatutako Motxian Eby esketx lehiaketaren bitartez.

Motxian Eby lehiaketako parte-hartzaileek euskaraz abesten duen musika talde baten edo euskarazko abesti baten "parodia" egin beharko dute, letra aldatuz eta abestiaren edota taldearen arabera mozorrotuta eta karakterizaturik.

Ekimen honen bitartez, gazteen artean euskararen erabilera sustatu nahi dute, hizkuntza alor guztietara eramanaz, umorearen alorrera zabalduz.

Esketxak nahitaez euskaraz eginak izan behar dute, abestutako nahiz hitz egindako pasarteetan. Gutxi gorabehera minutu bateko iraupena izan behar dute eta

edozein gailurekin grabatu daitezke: eskuko telefonoa, bideo kamera, tablet-a, argazki makina...

Esketxak aurkezteko epea urriaren asteazketatik azaroaren 14ra izango da eta umorea, letraren orijinaltasuna, karakterizazioa eta ikus-entzunezkoaren ekuzio teknika –plano mota, argiztatzea...– baloratuko dira.

Lanak [kaixo@motxianeby.com](mailto:kaixo@motxianeby.com) helbide elektronikora edo 620 439 104 zenbakira Whatsapp bidez bidali ahal izango dira.

## Ikasleak epaimahaiari

Irabazleak bi eskualdetako DBHko 4. mailako ikasleek erabakiko dituzte. Hala, Oarsoaldeko bideoen artean onena, Buruntzaldeko ikasleek aukeratu dute, eta alderantziz.

Eskualde bakoitzeko bi sari



lazio Motxian Eby lehiaketako irabazleen talde-argazkia. Iaz Oier Odriozola herritarrek Buruntzaldeako bigarren postua lortu zuten.

egongo dira: bideo onenak 300 jasoko ditu eta bigarrenak 200. Gainera, publikoaren saria ere izango da. Internauten bozka gehien jasotzen duenak 50 euroko saria irabaziko du.

Lehiatuko diren esketxak, ikusgai jartzen joango dira

[www.motxianeby.com](http://www.motxianeby.com) webgunean, gero DBH-4ko gelek eta publiko orokorrak bozkatu ahal izateko. Irabazleak azaroaren 24an jakitera emango ditu epaimahaiak.

Lehiaketari buruzko informazio guztia [www.motxianeby.com](http://www.motxianeby.com) webgune berezian

aurki daiteke. Iaz besteak beste, herriko Oier Odriozola gazteak Buruntzaldeako bigarren postua eskuratu zuen mezu laburren "Motxian eby" lehiaketan eta eremuko sailkapenean bigarren eginda, 60 eurotako saria eskuratu zuen.

# Euskararen zapalkuntzaren lekukoak

"Euskara, ospeletik eguterara" erakusketa izango da aste osoan zehar Manuel Lekuonan

Ttakunek, udalak eta Euskal Memoria Fundazioak "Euskara, ospeletik eguterara" erakusketa ekarri dute Manuel Lekuonara. Euskal Jaiaren egitarauaren baitan dago kokatuta. Honekin batera asteazkenean "Euskararen kate hautsiak" dokumentala ikusi ahal izango da eta ondoren solasaldia egingo da izen bereko liburua idatzi duen Dabid Anautekin. Honetan hainbat herritarrek euren testigantzak eskainiko dituzte, herrian euskararen zapalkuntza nola bizi izan zuten ezagutzera emateko. Antolatzaileek saio honetan parte hartzerantz deitzen dituzte herritarrek.

Maidar AZURMENDI

Euskal Jaiaren egitarauaren baitan hainbat ekintza izango dira aste honetan zehar. Erakusketa, solasaldia eta Euskararen iragan hurbila ezagutzeko parada izango da besteak beste.

Gaurtik hasi eta larunbata goiza bitartean "Euskara, ospeletik eguterara" erakusketa izango da Manuel Lekuona kultur-etxeko erakusketa aretoan ikusgai. Asteazkenean berriz, "Euskararen kate hautsiak" dokumentala ikusi ahal izango da kultur etxean 19:00etan eta honetan izen bereko liburua idatzi duen Dabid Anautekin solasaldia egiteko aukera izango da.

Honek euskararen zapalkuntzaren testigantzak jaso ditu eta gurean hau nola bizi izan zen kontatuko du herritar talde batek.

Euskal Memoria Fundazioak Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin egindako lana da "Euskara, ospeletik eguterara" erakusketa. Gipuzkoako herri ezberdinetan izan da ikusgai eta aste honetan gurera iritsi da. Erakusketa zein "Euskararen kate hautsiak" liburua helburua hizkuntzaren zapalkuntzaren oroimena berreskuratzea da.

## 12 panel

Erakusketa osatzen duten 12 paneletan euskararen kontrako zapalkuntzak azken mendean izandako ezaugarriak eta utzitako ondorioak agertzen dira. Euskal Memoriatik aipatzen denez, konstante historikoa izan dela adierazten duten datuak jasotzen dira; hizkuntza desagerarazteko baliatu diren bideak eta nolakotasuna: eskola, debekua, errepresioa eta zigorra, presio ideologikoa...

Euskarak jasandako zapalkuntza honen adierazle diren garai ezberdinetako lekukotasun, gertakari eta agiriak zein honek utzitako ondorioak eta

egungo egoeraren isla esanguratsuak topa daitezke paneletan.

## Hiztun galera

Gipuzkoarren % 96,6 zen euskal hiztuna 1966. urtean eta 1996an, berriz, % 51,5 zen euskalduna. Euskal Herri mailan, % 52,2tik 27,6ra pasa zen.

Euskal hiztun galera hau zergatik gertatu zen jakiteko, "funtsezkoa da euskararen zapalkuntza eta euskal herritarren kontrako jazarpen linguistikoa oroimena berreskuratzea" diote Euskal Memoria Fundaziotik.

Euskararen oroimen historikoaren berreskuratzeari begira dokumentatze eta dibulgazio lanari heldu dio erakunde honek, "memoria historikoa berreraikitze lan orokorraren baitan".

Euskal Memoriatik azaltzen dutenez, "bereziki XX. mendean zentratu dugu geure hizkuntzak jasandako jazarpenaren azterketa, eta bilketa lan horrek bi atal nagusi izan ditu: batean herritarren hitza jaso dugu, eta euskarak jasan behar izan duen jazarpena eta zapalkuntza biltzeko eta deskribatzeko ahalegin berezia egin dugu. Bestean, aldiz, honi Euskal Herriatik emandako erantzuna, hizkuntzari eusteko sortu eta egituraturiko ahalegina".

Euskararen kontra egin eta eragindakoari heldu diote, eta honetan herritarrek dira kontakizun horren protagonistak, haien bizipenak eta oroitzapenak azalduz: eskola, gerra, administrazioa, kaleko giroa, herria eta hiria, etxea, lan-mundua... "Horietan guztietan euskara eta euskaldunak zertan ziren jakin nahi izan dugu".

Horrez gain, "XX. mende-ko giro horretan euskaldunek, nola erantzun eta erreakzionatu zuten jasotzea garrantzitsua da. Euskararen zapalkuntza giro gogor batean, euskararen aldeko mugimendu sendo bat sortu



Herri ezberdinetan izan da ikusgai dagoeneko Euskal Fundazioaren erakusketa.

zen, eta ekimen indartsu eta emankorra sortzeko gauza izan zen, gaur arte iraun duena eta euskara ospeletik eguterara ekartzeko gai izan dena". Horri esker diote Euskal Memoria Fundaziotik, "euskarari eutsi diogu".

## Euskal Jaia

Larunbatean Ttakunek herriko beste elkarteekin eta Udalarekin elkarlanean antolatu du bigarren aldiz Euskal Jaia. Honen egitarauan sartu dituzte erakusketa eta asteazkeneko solasaldia.

Erakusketa gaur arratsaldeko 18:00etan zabalduko da eta larunbata goiza arte izango da ikusgai. 10:00etatik 13:00era eta 18:00tik 21:00rako ordutegian gerturatu ahal izango dira herritarrek.

Hitzaldiari dagokionez, 19:00etan izango da kultur etxean eta "Euskararen kate hautsiak" dokumentalaren proiektioarekin hasiko da. Ostean, solaserako tartea zabalduko da eta gurean hizkuntzak jasandako zapalkuntza nolakoa izan zen kontatuko dute Dabid Anautekin batera, Imanol Lizardi, Juanita Kastresana, Miren Zubeldia eta Itziar Camarero herritarrek. Kontutan izan behar da beste herrietan bezala, Lasarte-Oriako bizilagunek jasan zutela zapalkuntza linguistikoa, izan ere, euskaraz eskolan egiteko aukerarik ez zegoen eta gaizki ikusita ere egon zen bolada luzean euskaraz kalean hitz egitea.

Etxerako hizkuntza bezala geratu zen familia batzuetan eta beste etxe batzuetan berriz, galdu egin zen. Herrian gurasoen ekimenez ikastola sortu zenean, 1966. urtean, eman zitzaion nola-



1966. urtean Andre Joakina-Enean kokatu zen herriko ikastola.

baiteko bultzada euskararen berpizkundeari. Andre Joakina-Enean kokatu zen ikastola lehenengo urteetan. Ikasturte-ikasturtera ordea, ugartzen joan ziren ikasleak eta leku berriak bilatu behar izan zituzten gurasoek euren seme-alaben hezkuntzak euskaraz jarraipena izateko. Herritarrek aipatu bezala, ikastolaren sorkuntzarekin batera hasi zen gurean euskararen aldeko mugimendua indartzen.

Hauek bezalako hamaika kontu entzuteko aukera izango da, "Lasarte-Oriako historiaren parte garrantzitsu bat agerian geratuko da solasaldi honetan", adierazi dute.

Beratarutakoei euren bizipen eta testigantzak idazteko aukera emango zaiela ere aipatu dute antolatzaileek.

Asteazkenean idatzi edota larunbatean, Euskal Jaian bertan, izango da aukera hauek uzteko. Soka bat jarriko da Okendo plazan eta honetan zintzilikatu ahal izango dituz-

te herritarrek hizkuntzari dagozkion euren istorio eta bizipenak.

## Larunbatean festa

Bestalde, ostiralean Euskal Jaiaren egitarauaren barruan antzerki emanaldia izango da kultur-etxean. "Psikiatriko bateko ametsak" antzezlan eskainiko du HIGA taldeak. Kukuka antzerki eta dantza eskolak proposatutako ekintza da amateur programazioaren baitan. Sarrerak, aurrealmentan, 3,00 eurotan izango dira eta ostiralean, 5,00 eurotan.

Egun handia larunbata izango da eta egitaraua goizean goiz hasiko da, 9:00etako dianarekin. Egun osoan zehar adin tarte guztiei zuzendutako ekintzak izango dira eta esaterako, Okerra harria plazan ikusi ahal izango da.

Antolatzaileek baserriar jantziaren garrantzia azpimarratu nahi dute eta herritarrek horrela jantzita plazara irteera animatzen dituzte.

## FUTBOLA.-

# Texasek galdu egin zuen etxean

I. Erregional mailako taldeak 0-4 galdu zuen Santo Tomas Lizeoaren aurka

**Ligako 4. jardunaldian Texasek 0-4 galdu zuen. Denboraldia hasi besterik ez da egin, baina herriko kluba indartu egin da, jokariak motibazioz beteta daude eta ez diote ezeri aterik ixten. Sailkapenaren goikaldean egotea da helburua.**

## TXINTXARRI

Texas Lasartearrak hasi du denboraldia, iaz 50. urteurrena bete zuen klubak, herriko festetan omendua izan zen gainera eta aurtun, opari gozoa egin nahi dio bere buruari. Igoera fasera sailkatu nahi du Lasarte-Oriako klubak, eta behin bertan, igoerarengatik egin nahi du borrokan. Hori ezinezko balitz, Kopa irabazi nahiko lukete txuri-urdinek

## Ligako ibilbidea

Azken hiru jardunaldietan garaipen bat eta porrot bat erdietsi ditu. Lehenengo jardunaldian Euskalduna menderatu zuen 1-2ko emaitzaz Andoainen. Bigarren jardunaldian atsedena izan zuen eta pasa den astean 2-0 galdu zuen Iluariren aurka.

Larunbat arratsaldean

jokatu zuen etxeko lehenengo partida Santo Tomas Lizeoaren aurka eta hau hasi baino lehen berriki zendutako Ignacio Forja herritarra gogoan izan zuten minutu bateko isilunearekin. Partidari gogotsu ekin arren, defentsan egindako hutsuneak garesti ordaindu zituen etxeko taldeak eta lehen zatia amaitzerakoan, donostiarrak aurreratzen ziren 0-2 markagailuan.

Bigarren zatian berriz, ezin izan zioten buelta eman eta 0-4ko emaitzarekin amaitu zen partida. Vicente Gil entrenatzailearentzat partida maldan gora lehenengo zatian jarrita, jokalariek huts handiak egin zituzten ondoren. Hala ere, datorren partidarako badakite zer zuzendu eta lanean jarraituko dute denboraldi hasiera besterik ez da eta.



Texaseko hamaikakoa hau izan zen larunbatean etxean jokatu zuten denboraldiko lehenengo partidari.

## Denboraldiko helburuak

lazko bideari jarraiki, aurtun ere Texasek Erregionalen I. Mailan eta I. Jubenil mailan ditu taldeak. Jose Cantos Texaseko ordezkariek azaldu ditu 2014/2015 denboraldirako asmoak: "Erregionalekin igoerarengatik egin nahi dugu borroka, ez diogu ezeri aterik ixten. Aurtun fisikoki hobeto gaude, mutilak animatuta daude eta hobekuntza nabari da berdegunean".

Jubenilen kasuan, "urtez urte hobetzea" nahi du Cantos-



Texasek defentsan egindako akatsengatik galdu zuen partidari.

sek. Entrenatzaile lanetan Jesus Martin "Txutxi" arituko da gazteekin.

## Koparekin harreman duta

Behin liga erregularra amaituta, igoera fasera sailkatzerik

ez badute, Kopari begira jarriko da Texas. Iaz final-laurdenetarainoko bidea egin zuten, baina 2009-2010 denboraldian II. Erregional mailako Gipuzkoako Kopa irabazi zuten.

## MENDI-DUATLOIA.-

## Zubietako mendi-duatloi arrakastatsua

Zubietako IV. Mendi-duatloian 123 lasterkaririk parte hartu zuten larunbatean, ediziorik jendetsuena izan dela azpimarratu zuten antolatzaileek.

Guztietan azkarrenak Julen Larruzea, Alexander Ordeñena eta Aitor Perez eta Meritxell Henales, Esti Garcia eta Saioa Olite izan ziren gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapenean hurrenez hurren. Julen Larruzea irabazleak 1:01:19ko denboran osatu zuen ibilbidea eta atzean sartu ziren 1:02:06ko denborarekin Alexander Ordeñena eta 1:03:51koarekin Aitor Perez.

Nesken kasuan, Henales 1:22ko denboran helmugaratu zen, Garcia 1:24 eta Olite 1:29.

Zubietakoa edonork osatzeko moduko ibilbidea dela diote "asekiblea", antolatzaile-

leek herritar guztiei parte-hartzeko aukera eskaini asmoz prestatzen baitute urtero. Hasteko, 4,5 kilometro korrika mendiz, ia 17 mendi-bizikletaz Berrigaña inguruetan eta amaitzeko beste 2,2km korrika kaxkoan amaitzeko.

## Txikienentzat tartea

Nagusien proba hasi aurretik gainera, 10 eta 13 urte bitarteko gaztetxoek euren proba berezia izan zuten Zubietan barrena. Amaitzerakoan, lasterkari guztiek pintxo-potea izan zuten indarrak berreskuratuzeko.

Antolakuntzatik aipatu nahi izan zuten, aurtengoan 6 emakumezkoen parte hartzea izan dela duatloian "bi edo hiru izaten ziren eta aurtun batzuk gehiago etorri direlako pozik gaude. Datorren urteetan kopurua igotzen joatea espero dugu".



Ediziorik jendetsuena izan zen larunbatekoa, herritar talde bat ere bertan izan zen.

## GAZTEAK.-

Eskola kirola hasi da, 427 gaztetxorekin

Lasarte-Oriako kirolaren harrobia osasun onean da. Sasoeta eta Landaberi ikastetxeako 427 gaztetxok eskolaz kanpoko jardueretan, Eskola Kirolean eman dute izena.


Urriaren hasieran hasi dituzte entrenamenduak eta aukera zabala daukate herrian bertan: Tenisa, gimnastika erritmikoa, atletismoa, judoa, igeriketa, pilota, futbola, natur ekintzak, erritmo jarduerak, multikirola...

LH eta DBHko gazteek kirola eginez ongi pasatzea da Ttakun KEko arduradunen nahia, kirola lehiaketa soilaz haratago, ongi pasa eta balio positiboak transmititzeko erremintzat hartzen baitute.



## Agenda

Larunbata, 20:00etan Manuel Lekuona Kultur-Etxean



### Zinema emanaldi bereziak

"Lasa y Zabala" Pablo Malo zuzendari donostiarraren film entzute-tsua bost emanaldi ezberdinetan emango da Manuel Lekuonan. Udaleko kultura sailak zinearen digitalizazioarekin batera, herrira estreinaldiak ekartzeko ahalegina egingo zela adierazi zuen eta hau da horren adibide. Kasu honetan larunbatean eta igandean 20:00etan eta 22:00etan izango dira saioak eta astelehenean azken pase bat egingo da 20:00etan. Sarrera 5,90 eurokoa da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 17, 22:00etan

"Psikiatriko bateko ametsak" antzezlanak Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak, proposaturiko amateur programazioan. HIGA Taldearen antzezlanak izango dira. Sarrerak, aurrez aurre, 3,00 eurotan izango dira eta ostiralean, 5,00 eurotan. Euskal Jaiaren egitarauaren baitan.

### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 19, 17:00etan

"Maya erlea" filma ikusi ahal izango da haurrentzako zinema saioen baitan. Sarrera 3,70 euro. Euskaraz.

### Euskal Jaia

OKENDO

Larunbata 18,

9:00 Diana

9:30 Ibilbide gidatua herritik, Miren Egizabal gidari lanetan, Oinatz taldekoek prestaketa lanak, testigantza ATCKo neska eta hainbat herritarrek.

11:30 Txalapartariak eta bertsolaria

11:30 Kantu-Dantza jira: Herrian zehar erdigunea eta Jaizkibel plaza.

Kantu jira haurren abestiekin egingo da.

14:00 Bazkaria Okendon, paella jana

16:00 Saskibaloia, futbola, esku pilota, lokotxak-sokatira... jokoak izango dira haur eta gaztetxoentzat herriko Ostadar eta Intza elkarteek antolatuta.

17:30 Okerra Harria altxatuko dute Iban Ugartemendia eta Jokin Eizmendi harri jasotzaileek

18:00 Erromeria Ezten Giroekin

20:30 Pintxo potea

22:30 Karaokea eta Gau Musikatua

### Lasarte-Oria

#### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 14, 18:00etan

Kontukantorearen txanda izango da ipuinaren orduan. Haur liburutegian 6, 7 eta 8 urteko umeei zuzendutako saioa egingo dute herriko kontalariek. Euskaraz eta doan.

talaren emanaldia eskainiko da. Ondoren solasaldia egingo da izen bereko liburuaren egilearekin, David Anautekin, Imanol Lizardi, Juanita Kastresana, Miren Zubeldia eta Itziar Camarero herritarrekin. Honetan Euskararen zapalkuntzaren lekukotzak izango dira ardatz. Ttakunek, Udalak eta Euskal Memoria fundazioak antolatu dute eta Euskal Jaiaren egitarauaren baitako ekintza izango da.

tiarraren grabatuak ikusi ahal izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 13tik 19ra

"Ospeletik egutera. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria" erakusketa. 13an 18:00tik 21:00ko ordutegian, 14tik 17ra goiz eta arratsalde eta larunbatean berriz, goizez bakarrik izango da ikusgai. Euskal Jaiaren baitako ekintza da Udalak, Ttakunek eta Euskal Memoria fundazioak antolatuta.

### Dokumentala

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 15, 19:00etan

"Euskararen Kate Hautsiak" dokumen-

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urrian zehar Alots Arregi artista azkoi-

### Antzerkia

## Herritarren txokoa

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirinda, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

#### Xumela entseguak

Xumela koroak entseguak hasi ditu Landaberri BHI eraikinean. Entseguak 19:30etik 20:30era egiten dituzte eta honetan parte hartzea irekia dela gogoratu nahi dute sustatzaileek ikasturte hasiera honetan. Euskara ikasten ari diren herritarrek bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egiteko leku aproposa delako.

#### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandean kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaleta-

sunak duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

#### Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.


#### Txintzarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketa hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

### .eus domeinua eskuragarri

Azaroaren 8ra luzatuko den lehen fasea, batez ere, elkarte, enpresa eta instituzio publikoen domeinu izenei bideratua dago, domeinu-izenak eskatzeko eta babesteko balioko du.

Lehentasun irizpideak domeinuak eskuratzeko garaian honakoak izango dira: Marka erregistratuak, Domein-izenen blokeoa, Interes publikoa, tokiko markak eta erregistro librea. Abiarazte-aldia azaroaren 18an bukatuko da eta denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira, Euskararen Nazioarteko Egunean. Hortik aurrera fase irekia zabalduko da. Erregistratzeko prozedurari dagokionez, edonork eska dezake .eus domeinu-izen bat, .com edo .org bezala. Izan partikularra edo erakunde/enpresa/elkartea, izan hemengo edo hangoa. .eus domeinu-izen bat eskuratzeko ez da eskatzailea nor den begiratuko, webgunea baizik. Domeinua eskatzeko [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus) webgunean sartu eta domeinua eskuragarri dagoen begiratu. Eskuragarri badago, agertuko den erregistradore zerrendatik bat aukeratu; eta, haren webgunean, erosketaren prozesua gauzatu. .eus domeinu-izenen azken prezioa erregistradoreek jarriko dute, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera. Hau da, erregistradore ezberdinek prezio ezberdinean eskain dezakete. Prezioak beste zerbitzu batzuk ere barnebil ditzake (.eus posta elektronikoa, DNSen kudeaketa, web espazioa, laguntza eta abar).



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)



Mezarekin hasi zuten Euskadiko Andaluzia etxeen eguna Michelinen, jarraian dantza eta musika emanaldiak etenik gabe txandakatu ziren oholza gainean.

## Lasarte-Oria andaluzen topagune

Semblante Andaluzen Aste Kulturalaren baitan, Euskadiko andaluziarrak elkartu ziren herrian

**Ostiralean hasiera eman zioten Semblante Andaluz elkarte-koek euren Aste Kulturalari. Hiru egunetan musika eta dantza izan dira nagusi Michelingo tenis pistetan. Larunbatean FARAE Euskadiko andaluziar etxeen topaketa egin zen eta honetara asko izan ziren gerturatutakoak. Besteak beste, Martin Garitano Ahaldun Nagusia eta PSE-EEko Idoia Mendia izan ziren andaluziar komunitatearen ospakizunetan.**

### TXINTXARRI

Ostiralean hasi eta atzo eman zioten Semblante Andaluz elkarte-koek amaiera festa astuburuari. Egun hauetan dantza eta musika izan dira protagonistak Michelinen.

Semblanteko kideek urtero antolatutako ohi duten Aste Kulturalaren baitan, larunbatean FARAE Euskadiko andaluziar etxeen topaketa burutu zen gurean.

Honetara Barakaldo, Lau-

dio, Gasteiz, Durango, Sestao, Santurtzi, Portugalete, Arrasate, Ermua eta Errenteriko andaluzia etxeetako kideak hurbildu ziren, bazkarian esaterako, 620 bat lagun elkartu ziren antolakuntzak aipatu bezala.

Hauen artean, andaluziar komunitatearen ospakizunean Martin Garitano Ahaldun Nagusia eta Itzia Pildain Aldundiko Aniztasun zuzendaria edota PSE-EEko Idoia Mendia Euskadiko sozialisten Idazkari Nagusia, Denis Itxa-

so eta Iñaki Arriola izan ziren. Andaluziako gobernuaren ordezkari bezala Victor Bellido izan zen bertan. Jaurlari-tzatik Jose Manuel Bujanda izan zen eta harreraren zein bazkarian erakunde ezberdinetako kideekin batera izan ziren Udal ordezkariak Pablo Barrio alkatea buru. Ordez-kari guztiei Erketzeko dantzari-ek egin zieten harrera. Hauek mintzaldi laburretan berriz, kultura ezberdinen elkarbizitzaren onurak azpimarratu zituzten.

Herritarrek asteburu osoan Andaluziako produktuez gozatzeko gain, musika alaia eta dantza koloretsuekin festan murgildu ahal izan dute. Semblanteko kideak pozik azaltzen ziren asteburuko egitarauak izandako erantzunarekin.



Igandean jende gutxiago ibili zen Michelinen baina hala ere jaiak jarraitu zuen. Besteak beste herriko taldeen emanaldiekin gozatzeko aukera izan zen, paellada eta joko zein zozketak burutu zituzten.